

EKAINAK 21, TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN EUSKAL KONTSEILUAREN ERAKETA

“UDALEK HURBILTASUNERAKO FUNTSEZKO OSAGAIA GEHITZEN DIEGU POLITIKEI, UDALERRIETAN APLIKATZEA ERRAZTEKO ETA HERRITARRENTZAT ERABILGARRIAK IZAN DAITEZEN”

- EUDEL-en elkarteburu Imanol Landaren ustez, Kontseilua eratu izana *“albiste ona”* eta *“aurrerapauso esanguratsua”* da, bai udalentsat bai erakunde-sistema oro har dinamizatzeko, *“aukerak sortzeko tresna bat, borondateak bateratu eta adostasunak biderkatzeko, akordioak lortu eta proposamenak egiteko, helburu komuna lortzeko: herrialdea eraikitzea”*.
- *“Udalak beste erakunde batzuen ondoan jarri gara, udal eskumeneko politika publikoen ‘sukaldearen’ barruan”* elkarteburuak azaldu du, udalen interesak aitortu eta neurtu daitezen, gobernuaren tokiko esparruari eragiten dieten politika publikoak diseinatu, sortu, betearazi eta ebaluatzeko prozesuetan.
- EUDEL-en ordezkariak Kontseiluari ahalik eta etekin handiena ateratzera animatu ditu erakundeak, *“organo bizia izan dadin, funtzionatzen duena eta ondo funtzionatzen duena, gainera”*. Landak uste du ezinbestekoa dela organo horrek modu egonkorrean lan egitea bermatzeko beharrezko bitartekoak jartzea, *“lantzean behin eta itxurak gordetzeko soilik bildu ez dadin”*.
- Kontseiluak toki, foru eta autonomia mailako ordezkari-tza paritarioa dauka (18 kide guztira, Eusko Jaurlaritzako 6, foru aldundietako 6 eta Euskadiko udaletako 6 ordezkari: gizonezko 3 hautetsi eta emakumezko 3 hautetsi, hiru lurraldeetako udalerrietakoak eta tamaina guztietakoak).

Ekainaren 21a, Vitoria-Gasteiz. EUDEL-en elkarteburu Imanol Landa komunikabideen aurrean agertu da, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua eratzeke lehen bileraren aurretik, Euskadiko udalen balorazioa helarazteko, udalen interesak kontuan hartuta, tokiko politikak modu bateratuan diseinatzeko erakunde arteko lankidetzaren organo berria abian jartzeari dagokionez.

EUDEL-en elkarteburuaren ustez, Kontseilua eratzea *“albiste ona”* eta *“aurrerapauso esanguratsua”* da; izan ere, Euskadiko udalei **zeregin garrantzitsua** esleitzen die EAEren erakunde-sistemaren harremanen eta funtzionamenduaren esparruan. Aldi berean, Imanol Landak zera nabarmendu du: Kontseilua *“aukerak sortzeko tresna da”*, zentzu bikoitzean; izan ere, horren baitan askotariko mailako lankidetzaren gorpuzteaz gain, *“borondateak bateratu eta adostasunak biderkatzen laguntzen du, akordioak lortu eta proposamenak egiteko, helburu komuna lortzeko: herrialdea eraikitzea”*.

EUDELen elkarte-buruak Kontseilua ***“udal eskumeneko politikak herrialde mailan egosten diren sukaldea”*** dela esan du; bertan, udalak lehenengo mailako eragile politikoak izango dira, ordezkari-tza paritarioarekin*, Eusko Jaur-laritzarekin eta foru aldundiekin batera.

Imanol Landak azpimarratu duenez, Kontseiluaren **xede zehatza tokiko** politika publikoak dira, eta azaldu du orain arte *“erabaki garrantzitsuenak gobernuaren beste maila batzuetan hartu izan direla, eta eragin handia dutela udalen zereginean”*.

Zentzu horretan, EUDELen elkarte-buruak defendatu du garrantzitsua dela tokiko gobernu-ek hasieratik parte hartzea gainerako erakundeekin batera, udal eskumenei eragiten dieten politikak egiteko prozesuan: ***“udalak hurbiltasunerako funtsezko osagaia gara, politika, plan edo programa horiek udalerrietan modu arrakastatsuan aplikatu daitezten. Azken finean, tokiko politikak herritarrentzako erabilgarriak eta praktikoak izan daitezten lortu nahi dugu, pertsonen bizimoduan benetako onura ekar dezaten”***.

EUDELen ordezkariak Kontseiluari ahalik eta etekin handiena ateratzera animatu ditu erakunde guztiak, *“organo bizia izan dadin, funtzionatzen duena eta ondo funtzionatzen duena, gainera”*. Horretarako, komenigarria dela organo horrek modu egonkorrean lan egitea bermatzeko beharrezko bitartekoak jartzea, *“lantzean behin eta itxurak gordetzeko soilik bildu ez dadin”*.

Benetako erronka, Legea garatzea

Euskadiko Toki Erakunde-en apirilaren 7ko 2/2016 Legearen barruan, sortzea aurreikusi den lehenengo organoa da Kontseilu hau, eta udalen aldarrikapen historikoetako bat da 2010eko martxo-tik; izan ere, data horretan egin eta Eusko Jaur-laritzari bidali zitzaion ***“Euskadiko Udal Legerako Oinarrien Dokumentua”*** (2010eko martxoa).

Horregatik, erakunde guztiek *Legea* aurreikusitako lehen organoa den Tokiko Politika Publiko-en Euskal Kontseilua eratze-ko agertutako inplikazioa eta esfortzua balioetsi nahi izan du EUDELen ordezkariak.

EUDELen elkarte-buruak adierazi duenez, ***“benetako erronka orain hasiko da, Legea garatzeko prozesuarekin”***, eta ***“lan handia dago oraindik egiteko”***, eskumene-n esparruan zein esparru ekonomiko-finantzarioan aurreikusitako mekanismo guztiak abian jartzeko, baita gainerako sektore-esparruei eragiten dietenak martxan jartzeko ere. Imanol Landak *“prozesu konplexua, zaila eta neketsua”* dela esan du, erakunde guztientzat aldaketa handiak dakartza-eta, *“hala gure erakunde-en ‘barne kultur-an’ eta lan egiteko moduan, nola erakunde-en artean erlazionatzeko moduan”*, baina, aldi berean, ***“erronka liluragarria da Euskadiko udalentzat”***.

Elkarte-buruak baieztatu duenez, Toki Erakunde-en Legea *“estrategia- eta egitura-ardatza da EUDELentzat”*, orain eta hurrengo urteetan. ***“Adi egongo gara, eta erakunde guztiek hartutako konpromisoak betetzen direla eta udalerrietan modu egokian aplikatzen direla zainduko dugu”***.

Tokiko Gobernuen Batzordea

Imanol Landak Tokiko Gobernuen Batzordea ere aipatu du; aipatutako organoa Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren jarraian eratuko da. Batzorde horretan parte hartuta, araudi berriak euren eskumenen esparruan izandako eragina positiboa edo negatiboa izan den baloratu ahal izango dute udalek. EUDELen elkarteburuak azaldu duenez, “Batzorde honen funtzioak bere osaera zehazten du”; **udaletako ordezkariak soilik** (tokiko 12 hautetsi) eratutako organo horrek “***alerta goiztiar***” gisa funtzionatuko du, araudi-aurreproiektuetan udalen autonomia urratzea saihesteko.

*“Batzorde honen bitartez, araudiaren testuarekiko **aldeko edo kontrako jarrera** agertu ahal izango dugu udalek, tramitazioa hasten den unetik bertatik”, aurreratu du Imanol Landak. Azaldu duenez, organo honek “**audientzia-eskubidea** gainditzen du, eta **analisia eta balorazioa** egiteko funtzioak gaitzen ditu, eragin juridikoekin”.*

Udaletako ordezkariak Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan, Lehendakariak EUDELen proposamenez izendatutakoak, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen **83.3 artikuluarekin bat etorritz:*

- GETXOko alkate eta EUDELen elkarteburua, **Imanol Landa**
- IRUNgo alkate eta lehen elkarteburuordea, **José Antonio Santano**
- ERRENTERIAko alkateorde eta bigarren elkarteburuordea, **Garazi López de Etxezarreta**
- MUNGIAko alkatea, **Ager Izagirre**
- ASPARREngo alkatea, **Consuelo Auzmendi**
- BURGELUko alkatea, **M^a Natividad López de Munain**